Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

3809

2372/2010 EBAZPENA, ekainaren 30ekoa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Ander Larrazabal Bilbao jaunak Ezkerraldea-Enkarterriko Eskualdeko zuzendari mediko izateari uzten diola adierazten duena.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 14ko 1769/2010 Ebazpenaren bidez, Ander Larrazabal Bilbao jauna izendatu zen Ezkerraldea-Enkarterriko Eskualdeko zuzendari mediko.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aztertu eta gero, zuzendaritza nagusi honek hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Ander Larrazabal Bilbao jauna Ezkerraldea-Enkarterriko Eskualdeko zuzendari mediko kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2010eko ekainaren 30etik aurrera izango du indarra.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari eta Ezkerraldea-Enkarterriko Eskualdeari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 30a.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIAN PÉREZ GIL.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

3809

RESOLUCIÓN 2372/2010, de 30 de junio, del Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, por la que se declara el cese de D. Ander Larrazabal Bilbao como Director Médico de la Comarca Ezkerraldea-Enkarterri.

Mediante Resolución 1769/2010, de 14 de abril, del Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, se nombró a D. Ander Larrazabal Bilbao Director Médico de la Comarca Ezkerraldea-Enkarterri.

Vista la Ley 8/1997, de 26 de junio, el Decreto 255/1997, de 11 de noviembre y demás disposiciones de pertinente aplicación, esta Dirección General

RESUELVE:

Primero.– Cesar a D. Ander Larrazabal Bilbao como Director Médico de la Comarca Ezkerraldea-Enkarterri, agradeciéndole los servicios prestados.

Segundo.– La presente Resolución surtirá efectos a 30 de junio de 2010.

Tercero.– Notificar la presente Resolución al interesado y a la Comarca Ezkerraldea-Enkarterri.

Cuarto.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de junio de 2010.

El Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud,
JULIÁN PÉREZ GIL.